

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

10. zenbakia

Data 2007-01-15

969 orria

3 GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO XEDAPEN OROKORRAK

GFA - DIPUTATU NAGUSIA

Urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUA, GLHko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 EDLak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzea.

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Urtarrilaren 9ko 1/2007 FORU DEKRETU ARAUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga araudia lurralde erkidean onartutako 10/2006 Errege Dekretu Legeak eta 36/2006 eta 42/2006 Legeak jasotako hainbat xedapenetara egokitzen duena.

*<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->*

Estatuaren esparruan hainbat xedapen onartu dira, zeinen bidez aldaketak sartu baitira, besteak beste, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari, Balio Erantsiaren gaineko Zergari eta Zerga Bereziei buruzko funtsezko araudian eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergan.

Zehazki, Tabako Laboreen gaineko Zergaren karga tasak aldatu dira azaroaren 10eko 10/2006 Errege Dekretu Legearen bidez. Bestetik, Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legeak hainbat aldaketa egin ditu araudian, estatuaren esparruan onartutako Zerga iruzurrari aurre egiteko planaren neurri batzuei erantzuteko asmoz. Besteak beste, aipatzekoak dira kontrol organoen jarduketa ahalmenak eta Zerga Administrazioaren informazioaren funtsezko hobekuntza; era berean, zerga zorren ordainketa efektiboa eraginkortasun handiagoz bermatuko da. Azkenik, abenduaren 28ko 42/2006 Legeak, Estatuaren 2007ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, hainbat aldaketa egin ditu aipatu zergetako batzuetan, eta horiek jaso beharrekoak dira Gipuzkoako zerga araudian, jarraian azalduko denari jarraituz.

*<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->*

Balio Erantsiaren gaineko Zerga tributu itundua da, Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberei jarraituta arautuko dena, hala ezartzen baitu Euskal Autonomia Erkidegoak indarrean duen Ekonomia Itunak, maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartuak, 21. artikuluan. Era berean, aurreko esaldian xedatutakoa xedatuta ere, aipatu legeak adierazten du zerga honen araudi autonomoa aplikatuko zaiela atzerrian egoiliar diren pertsona edo entitateek Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuta duten establezimendu iraunkorrei, Sozietateen gaineko Zergaren araudiak 14. artikuluan (lotura puntuak) jasotakoari jarraituz.

Bestetik, Ekonomia Itunak 26. artikuluan dio Balio Erantsiaren gaineko Zerga tributu itundua dela, Estatuak une bakoitzean ezartzen dituen edukizko eta formazko arau berberei jarraituta arautuko dena. Gauza berdina adierazten da 33. eta 34. artikuluetan, hurrenez hurren, Zerga Bereziei eta Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergari buruzko araudiari dagokionez.

Hori dela eta, derrigorrezkoa da Gipuzkoako zerga araudian sartzea, aipatu zergei dagokienez, Tabako Laboreen gaineko Zergaren karga tasak aldatzen dituen azaroaren 10eko 10/2006 Errege Dekretu Legean jasotako aldaketak, bai eta Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko azaroaren 29ko 36/2006 Legeak eta abenduaren 28ko 42/2006 Legeak, Estatuaren 2007ko Aurrekontu Orokorrei buruzkoak, jasotako aldaketak ere.

Horiek horrela, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko Foru Diputatuak proposaturik, eta Diputatuen Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau,

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

XEDATU DUT

1. artikulua. Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zerga aldatzea.

Aldaketa hauek jaso dira Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauan:

Lehena. Honela aldatu da 8. artikulua 3. apartatua:

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

«3. Zerga honen zergadunek establezimendu iraunkorrik gabe sortutako etekinen ordaintzailearen kasuan, bai eta establezimendu iraunkor bati atxikita ez dauden eta paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldeetako pertsona edo entitate egoiliarrenak diren ondasun edo eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea denean ere, Zerga Administrazioak bere jarduketak zuzenean erantzulearekin egin ahal izango ditu, eta zerga zorraren ordainketa exijitu ahal zaio, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 41.5 artikuluan jasotako erantzukizunaren aldez aurreko egintza administratiboa beharrezkoa izan gabe.

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

Gainerako kasuetan, aldiz, erantzukizun solidarioa 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 41.5 artikuluan jasotakoaren arabera exijituko da».

Bigarrena. Honela aldatu da 9. artikulua:

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

«9. artikulua. Ordezkarriak.

1. Zerga honen zergadunak behartuta daude ohiko egoitza edo zerga helbidea Gipuzkoan duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatzera, Gipuzkoan lortutako errenta aitortzeko epea amaitu aurretik, zerga honen betebeharrak direla-eta Zerga Administrazioaren aurrean ordezkatuak izateko, establezimendu iraunkor bitartez jarduten direnean Foru Arau honek 32. eta 32.sexies artikuluetan aipatutako kasuetan edo, bestela, Zerga Administrazioak horrela eskatzen duenean ikusirik subjektu pasiboak Gipuzkoan lortutako errentaren zenbatekoa eta ezaugarriak.

Betebehar hori exijituko zaie, era berean, Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateei, betiere lurralde espainiarrean kokatuta dauden ondasunen edo bertan bete edo gauzatzen diren eskubideen titularrak badira, kanpoan utzita bigarren mailako merkatu ofizialetan negoziatutako baloreak.

Zergaduna edo bere ordezkaria behartuta dago Zerga Administrazioari izendapenaren berri ematera, bidezko frogagiriak aurkeztuta, bi hilabeteko epean izendapenaren egunetik aurrera.

Izendapena Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko zuzendari nagusiari jakinaraziko zaio, eta jakinarazpenarekin batera ordezkaria onartzen dela adieraziko da espresuki.

2. Aurreko apartatuan jasotako izendapen obligazioa ez bada betetzen, Merkataritza Erregistroan agertzen den ordezkaria har dezake Zerga Administrazioak Foru Arau honek 5. artikulua c) letran aipatutako establezimendu iraunkorraren edo zergadunaren ordezkari gisa. Ordezkaria izendatu edo erregistratu ez bada, edo establezimendu iraunkorraren izenean kontratatzeko ahalmena duenaz besteko pertsona bada, Zerga Administrazioak azken hori hartu ahal izango du halakotzat.

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

Ordezkarria izendatzeko obligazioa ez badute betetzen Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateek, Zerga Administrazioak haien ordezkariatzat har dezake zergadunen ondasun edo eskubideen gordailuzaina edo kudeatzailea.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

3. Lehen apartatuan aipatutako obligazioa ez betetzea zerga urraketatzat hartuko da, eta 2.000 euroko diru isun finkoz zigortuko da.

Isuna 6.000 eurokoa izango da, aldiz, baldin eta, Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera, zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateak badira».

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Hirugarrena. Honela aldatu da 10. artikulua 2. apartatua:

«2. Ordezkarria izendatu ezean, erantzule solidarioaren helbidean egindako jakinarazpenek zergadunari zuzenean egindako jakinarazpenen balio bera eta ondorio berberak izango dituzte.

Balio bera izango dute haien edozein ondasun higiezin kokalekuan egin daitezkeen jakinarazpenek, baldin eta ordezkarria izendatzeko obligazioa ez badute betetzen Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatuan jasotakoaren arabera zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren pertsona edo entitateek».

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Laugarrena. Honela aldatu da 14. artikulua:
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

«14. artikulua. Lotzeko moduak eta elkarri lotutako eragiketak.

1. Lurralde espainiarrean kokatutako establezimendu iraunkor bitartez errentak lortzen dituzten zergadunek establezimendu horri egotzitako errenta osoarengatik ordainduko dute zerga, errenta lortu den tokia edozein izanda ere, Foru Arau honen III. Kapituluan jasotakoaren arabera.

Establezimendu iraunkorrik gabe errentak lortzen dituzten zergadunek batzuk besteetatik bereizita zerga ordainduko dute kargapeko errentaren sortzape oso edo partzial bakoitzeko, haien artean batere konpentsaziorik gabe eta Foru Arau honetako IV. Kapituluan jasotakoaren arabera.

2. Zerga honen zergadunek beraiei lotutako pertsona edo entitateekin egindako eragiketei aplikatuko zaizkie Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16. artikuluan jasotako xedapenak.

Horretarako, elkarri lotutako pertsona edo entitatetzat hartuko dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16.2 artikuluan aipatutakoak. Edonola ere, ulertu behar da egoitza nagusia lurralde espainiarrean kokatuta duen establezimendu iraunkor bat lotuta dagoela egoitza nagusiari edo horren establezimendu iraunkorrei lotutako beste pertsona edo entitate batzuekin, azken horiek lurralde espainiarrean kokatuta egon edo atzerrian kokatuta egon.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Nolanahi ere, errentak establezimendu iraunkor bidez lortzen dituzten zergadunek Zerga Administrazioari eskatu diezaiokete kenkaridun diren zuzendaritza arloko gastuak eta administrazioko gastu orokorrak baloratu ditzala, Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak 16.6 artikuluan jasotakoaren arabera».

Bosgarrena. Honela aldatu da 17. artikulua:
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

«17. artikulua. Zerga oinarria zehaztea.

1. Establezimendu iraunkorraren oinarri ezargarria Sozietate Zergaren arau orokorretan xedatutakoari jarraituz zehaztuko da, paragrafo hauetan xedatutakoa eragotzi gabe:

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

a) Oinarri ezargarria zehaztean, ez dira kenkaridunak izango establezimendu iraunkorrak - etxe nagusiari edo horren establezimendu iraunkorretako bati kanon, interes edo komisio kontzeptuan, laguntza teknikoaren kontraprestazio moduan edo beste ondasun edo eskubide batzuk erabiltzeagatik egiten dizkien ordainketak.

Aurretik xedatutakoa xedatuta ere, kenkaridunak izango dira atzerriko bankuen establezimendu iraunkorrek beren etxe nagusiari edo beste establezimendu iraunkor batzuei haien jarduera gauzatzeko ordaindu dizkieten interesak.

b) Oinarri ezargarria zehaztean, kenkariduna izango da establezimendu iraunkorraren zuzendaritza gastuen eta administrazioko gastu orokorren arrazoizko zatia, baldin eta baldintza hauek betetzen badira:

1. Establezimendu iraunkorraren kontabilitate egoeretan jasotzea.

2. Banaketaren zenbatekoak, irizpideak eta moduluak jasota edukitzea, aitorpenarekin batera aurkeztutako memoria informatiboaren bitartez.

3. Egozpen irizpideak arrazionaltasun eta jarraikortasun printzipioei lotzea.

Egozpen irizpideen arrazionaltasun beharkizuna bete dela ulertuko da irizpide horiek establezimendu iraunkorraren faktoreen erabilpenean eta horien kostu osoan oinarritzen direnean.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Aurreko paragrafoan adierazitako irizpidea erabiltzea ezinezkoa denean, magnitude hauetako bat zer erlaziotan dagoen kontuan hartuaz egin daiteke egozpena:

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

a') Negozioen zifra.

b') Kostuak eta zuzeneko gastuak.

c') Jarduera edo ustiapen ekonomikoei atxikitako ibilgetu materialaren elementuetan egindako batez besteko inbertsioa.

d') Jarduera edo ustiapen ekonomikoei atxikitako elementuen batez besteko inbertsio osoa.

c) Inola ere ezin izango dira egotzi establezimendu iraunkorrari zuzenean edo zeharka atxikita dauden entitatearen kapital propioen kostuaren zenbatekoak.

d) Enpresa txiki eta ertainen araudia aplikagarria izango da baldin eta establezimendu iraunkorrari dagokion entitate ez-egoiliarak enpresa txiki edo ertainaren izaera badu, Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

e) Meatzaritzaren, hidrokarburoen ikerkuntza eta ustiapenaren nahiz errentamendu finantzarioko kontratu batzuen erregimen bereziak aplikaziozkoak izango dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak VIII. Tituluaren XI., XII. eta XIV. kapituluetan, hurrenez hurren, jasotakoaren arabera.

2. Establezimendu iraunkorrak oinarri ezargarri negatiboak konpentsatu ahal izango ditu Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 24. artikuluan jasotakoaren arabera.

3. Ondoko erregela hauek erabiliko dira establezimendu iraunkor batek Espainian egindako eragiketek diru sarreren ziklo merkantil oso bat ixten ez dutenean, baldin eta entitate ez egoiliarak edo establezimendu iraunkorretako batek zikloa inolako kontraprestaziorik gabe amaitzen badu, establezimendu iraunkorrak sortutako gastuen estaldura kontuan hartu gabe eta produktu edo zerbitzu guztiak edo zati bat entitate ez-egoiliarraz besteko hirugarrenentzat destinatu gabe:

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

a) Establezimendu iraunkorraren sarrerak eta gastuak Sozietate Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauaren 16. artikuluan jasotako arauari jarraituz baloratuko dira. Zerga zorra, orduan, Sozietate Zergaren araudi orokorrean eta artikulua honen aurreko apartatueta jasotakoaren arabera zehaztuko da.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

b) Horien orde, erregela hauek erabiliko dira:

1. Oinarri ezargarria zehazteko, aplikatu behar da Fiskalitaterako eta Finantzeterako Departamentuak establezimendu iraunkorraren xedea den jarduera garatzean izandako gastu osoei buruz ondorio horietarako erabakitzen duen portzentajea. Kopuru horri enpresaren xede ez diren diru sarrera osagarrien zenbateko osoa (interesak edo kanonak) gehituko zaio, bai eta establezimenduari atxikitako ondare elementuetatik eratorritako ondare irabazi eta galarak ere.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

Erregela honen ondorioetarako, establezimendu iraunkorraren gastuen zenbateko osoa konputatuko da, eta ez da gutxipen edo konpentsaziorik onartuko.

2. Kuota osoa kalkulatzeko, karga tasa orokorra aplikatuko zaio oinarri ezargarriari, aipatu araubide orokorrean erregulatutako kenkariak eta hobariak aplikagarriak izan gabe.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

4. Baldin eta lurralde espainiarrean sei hilabetetik gorako iraupena duten eraikuntza, instalazio edo muntai lanak, edo sasoi edo urtaro jakineko jarduera edo ustiapen ekonomikoak, edo natur baliabideen miaketa jarduerak egiten dituzten establezimendu iraunkorrak badira, erregela hauei jarraituz exijituko da zerga:

a) Jarduera edo ustiapen ekonomikoetan lurralde espainiarrean establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentei buruz Foru Arau honek 23.2 eta 24. artikuluetan jasotakoari jarraituz. Ondorio horietarako, erregela hauek erabiliko dira:

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

a') Establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errenten sortzapen eta aitorpenen aurkezpenari buruz emandako erregelak.

b') Zergadunak salbuetsita egongo dira kontabilitate eta erregistroari buruzko obligazio orokorrak betetzetik. Dena den, zergadunek gorde eta Zerga Administrazioaren esku utzi beharko dituzte zerga hau dela-eta lortutako sarreraren eta egindako ordainketen frogagiriak, bai eta, hala badagokio, atxikipenen eta konturako sarreraren frogagiriak eta haiei buruzko aitorpenak ere.

Era berean, behartuta egongo dira zentsu aitorpen bat aurkeztera eta Gipuzkoako zerga helbidea aitortzera, bai eta helbide horretan edo aitorpen hartako datuetan egindako aldaketa jakinaraztera ere.

b) Dena den, zergadunak aukeratu dezake aurreko artikuluetan establezimendu egoiliarretarako finkatutako araubide orokorra aplikatzea.

Nolanahi ere, aurreko a) letran adierazitako sistema erabiltzea derrigorrezkoa izango da lurralde espainiarrean lortutako errenten kontabilitatea bereizita ez daramanean.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

Jardueraren hasierari buruzko zentsu aitorpena aurkezterakoan adierazi beharko da aukera hori.

c) Inola ere ez zaizkie aplikatuko, aurreko a) letran jasotako sistema hartu duten zergadunei, ezarpen bikoitza saihesteko hitzarmenetan jasotako erregelak, establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak direnean».

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

Seigarrena. Honela aldatu da 18. artikulua 4. apartatuko a) paragrafoa:

«a) Zerga egoitza Europar Batasuneko beste estatu batean duten entitateek establezimendu iraunkor bidez lurralde gipuzkoarrean lortutako errentei, non eta hura paradisu fiskaltzat hartutako herrialdea edo lurraldea ez den».

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

Zazpigarrena. Honela aldatu da 23. artikulua 4. apartatua:

«4. Ondare irabazien oinarri ezargarria zehazteko, arau hauek aplikatuko zaizkio ondare aldaketa bakoitzari: 3/2004 Errege Dekretu Legegileak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Legearen testu bateratua onartzen duenak, II. tituluko I. Kapitulua 4. sekzioan jasotako arauak (salbu 31.2 artikulua), eta VIII. Tituluan jasotakoak (salbu 95.1.a artikulua 4. artikulua bigarren paragrafoa).

Entitate ez-egoiliarren kasuan, ondare irabazia kostu gabe egindako eskurapenetik datorrenean, oinarri ezargarriaren zenbatekoa elementuaren merkatuko ohiko balioa izango da.

Foru arau honek 12.2.k).c') artikuluan aipatzen dituen ondare irabaziak direnean, lurralde gipuzkoarrean kokatutako ondasun higiezinak edo ondasun horien gaineko eskubideek eskualdaketa momentuan duten merkatu balioaren proportzioan zehaztuko da eskualdaketa balioa, betiere Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatua jasotakoaren arabera zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren entitateen eskubide edo partaidetzak eskualdatzetik erortzen badira».

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Zortzigarrena. 3. apartatua gehitu zaio 24. artikuluari. Hona hemen idazkera:

«3. Foru arau honek 12.2.k).c') artikuluan aipatzen dituen ondare irabaziak direnean, lurralde gipuzkoarrean kokatutako ondasun higiezinengatik zerga ordaindu beharko da, betiere Zerga iruzurrari aurre egiteko neurriei buruzko Legeak lehen xedapen gehigarriaren 3. apartatua jasotakoaren arabera zerga informazioaren benetako trukea ez duten herrialde edo lurraldeetan egoiliar diren entitateen eskubide edo partaidetzak eskualdatzetik erortzen badira.

Dena den, ondasun higiezin horien entitate titularrak zerga egoitza Espainian badu, zuzenean edo zeharka zergadunari entitate horretan dagozkion eskubide edo partaidetzengatik ordaindu beharko da zerga».

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Bederatzigarrena. Laugarren xedapen gehigarria erantsi da, eta honela dio:

«Laugarren xedapen gehigarria. Adiskidantzako prozedurak.

1. Beste estatu batzuetako administrazioekin nazioarteko hitzarmen eta itunak gauzatzean sor daitezkeen gatazkak hitzarmen edo itunetan jasotako adiskidantzako prozeduren bidez konponduko dira, bidezko errekurso edo erreklamazioak aurkezteko eskubidea eragotzi gabe.

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

2. Bi administrazioen artean adiskidantzako prozedura baten barruan adostutako akordioa, era berean, horrek irmotasuna hartzen duen momentuan edo aldiaren gauzatuko da, arauz ezartzen den moduan.

3. Ondorio horietarako, arauz ezarriko da adiskidantzako prozedurak bideratu eta amaierako akordioa gauzatzeko jardunbidea.

4. Ezin izango da batere errekurtsorik aurkeztu aipatu akordioaren aurka. Nolanahi ere, horrek ez du eragotziko akordio horiek gauzatzeko ematen diren egintza administratiboaren aurka errekursoak jartzea.

5. 1. Adiskidantzako prozeduretan, zorraren ordainketa automatikoki etenda geratuko da, interesatuak eskatuta, baldin eta bermatzen badira zorraren zenbatekoa, etenak dakartzan berandutza interesak eta etena eskatzean bidezkoak izan daitezkeen errekareruak, betiere arauz jasotzen denari jarraituz.

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Ezin izango da zorraren ordainketa eten aurreko paragrafoan jasotakoaren arabera, etena bide administratiboan edo jurisdikzionalean eskatu daitekeen bitartean.

2. Bakarrik berme hauek onartuko dira aurreko zenbakian aipatutako eten automatikoa lortzeko:

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

a) Diruaren edo balore publikoen gordailua.

b) Kreditu entitate edo elkarrekiko bermerako sozietate baten abal edo fidantza solidarioa, edo kauzio aseguruko ziurtagiria.

3. Adiskidantzazko prozedurek ez badute zor osoa hartzen, adiskidantzazko prozedurek eragindako zenbatekora mugatuko da apartatu honetan jasotako etena».

2. artikulua. Balio Erantsiaren gaineko Zerga aldatzea.
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Xedapen hauek aldatu dira Gipuzkoako zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legearen xedapenetara egokitzen duen abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuan:

Lehena. Honela aldatu da 12. artikulua 3. zenbakia:
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

«3.a. Subjektu pasiboak doan egin dituen artikulua honen aurreko zenbakietan jaso gabeko gainontzeko zerbitzu prestazioak, betiere jarduera enpresarial edo profesionalaren xedeez besteko helburuetara bideratuta badaude».

Bigarrena. Honela aldatu da 79. artikulua bosgarren apartatua:

«Bosgarrena. Eragiketan esku hartzen duten alderdiak elkarri lotuta daudenean, haren merkatuko ohiko balioa izango da haren oinarri ezargarria.

Zuzenbidean onartutako edozein bide baliatuz frogatu ahal izango da lotura. Kasu hauetan lotura dagoela ulertuko da:
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

a) Eragiketan esku hartzen duen alderdietako bat Sozietateen gaineko Zergaren subjektu pasibo edo Pertsona Fisikoen Errentaren edo Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergen zergadun bada, aipatu zergen arauetatik hala ondorioztatzen denean.
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

b) Subjektu pasiboen eta lan edo administrazio izaerako harremanengatik horiekin zerikusia duten pertsonen artean egindako eragiketetan.

c) Subjektu pasiboaren eta ezkontidearen edo hirugarren mailara bitarteko odol- senideen artean, horiek barne, egindako eragiketetan.

d) 2004ko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauak, irabazi asmorik gabeko entitateen zerga erregimenari eta mezenasgoaren aldeko zerga pizgarriei buruzkoak, 4. artikuluan aipatzen dituen irabazi asmorik gabeko entitate batek eta bere sortzaileek, asoziatuek, patronoek, estatutu-ordezkariek, gobernu organoetako kideek, ezkontideek edo izatezko bikoteek, edo horietako edozeinen hirugarren mailara bitarteko ahaideek, horiek barne, egin dituzten eragiketetan.

e) Enpresari edo profesional den entitate batek eta bere edozein bazkidek, asoziatuk, kidek edo partaidek egin dituzten eragiketetan.

Bakarrik baldintza hauek betetzen direnean erabiliko da balorazio erregela hori:

a) Eragiketaren hartzaileak eskubiderik ez izatea hari dagokion zerga osoaren kenkaria egiteko, eta itundutako kontraprestazioa txikiagoa izatea lehia libreko baldintzetan egokituko litzatekeena baino.

b) Ondasun salmenta edo zerbitzu prestazioa egiten duen enpresari edo profesionalak hainbanaketa arauaren bidez zehaztea kenkariak, eta, kenkarirako eskubidea sortzen ez duen eragiketa izanez gero, itundutako kontraprestazioa txikiagoa izatea merkatuko ohiko balioa baino.

c) Ondasun salmenta edo zerbitzu prestazioa egiten duen enpresari edo profesionalak hainbanaketa arauaren bidez zehaztea kenkariak, eta, kenkarirako eskubidea sortzen ez duen eragiketa izanez gero, itundutako kontraprestazioa handiagoa izatea merkatuko ohiko balioa baino.

Foru Dekretu honen ondorioetarako, merkatuko ohiko baliotzat hartuko da, dena delako ondasun edo zerbitzuak eskuratzeko, ondasun salmentaren edo zerbitzu prestazioaren merkaturatze fase berean hartzaile batek zergaren aplikazio lurraldean lehia libreko baldintzetan hornitzaile independente bati ordaindu beharko liezaiokeen balioa.
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Konparaziozko ondasun salmenta edo zerbitzu prestaziorik ez dagoenean, merkatuko ohiko balioztat hartuko da:

a) Ondasun salmentei dagokienez, ondasun horien edo antzeko ondasunen eskurapen prezioaren zenbateko berdina edo handiagoa edo, erosketa preziorik ez badago, salmenaren momentuan zehaztutakoa kostu prezioa.

b) Zerbitzu prestazioei dagokienez, horiek enpresari edo profesionalari dakartzkion kostu guztiak.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Aurreko bi paragrafoen ondorioetarako, aplikaziozkoa izango da, bidezkoa denean, 1996ko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak, Sozietateen gaineko Zergarenak, 16. artikuluan xedatutakoa».

Hirugarrena. 87. artikuluari bosgarren apartatua gehitu zaio. Hona hemen testua:

«Bosgarrena. 1. Subjektu pasiboek ordaindu behar dituzten kargapeko eragiketei dagozkien zerga kuoten erantzule subsidiarioak izango dira enpresari edo profesional diren hartzaileak, betiere arrazoizko moduan ulertu beharko balute eragiketak egiten dituen enpresari edo profesionalak edo dena delako ondasunak eskuratu eta saldu dituen edozeinek jasanarazi duen edo jasanarazi behar izan duen zerga aitortu eta ordaindu ez dela izan eta ez dela izango.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

2. Ondorio horietarako, ulertu behar da aurreko zenbakian aipatutako eragiketen hartzaileek arrazoizko moduan ulertu behar zutela jasanarazi den edo jasanarazi behar izan den zerga aitortu eta ordaindu ez dela izan eta ez dela izango, baldin eta, horren ondorioz, ez-ohiko prezio nabarmena ordaindu badute eragiketengatik.

Ez-ohiko prezio nabarmenztat hartuko da:

a) Askoz txikiagoa den prezioa eragiketaren baldintzetan ondasun horiei dagokiena baino edo ondasun berdinen aurreko eskurapenetan ordaindutako prezioa baino.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

b) Askoz txikiagoa den prezioa ondasun horiek saldu dituenak horiek erosteko ordaindu duen prezioa baino.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Eragiketaren prezioa nabarmenki ez-ohikoa dela kalifikatzeko, Zerga Administrazioak aztergai izango ditu eskuartean duen dokumentazioa eta hartzaileek aurkeztutakoa. Era berean, posible duenean baloratuko ditu sektore ekonomiko berean egin diren eta aztertutakoarekin antzekotasun maila handia duten beste eragiketa batzuk, eragiketa egin den momentuan zein den ondasunen merkatuko ohiko balioa zehazte aldera.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Ez da hartuko ez-ohiko prezio nabarmenztat zergaren aplikazioaz besteko arrazoi ekonomikoengatik justifikatzen den prezioa.

3. Erantzukizun hori exijitzeko, Zerga Administrazioak frogatu behar du egon badagoela aitortu eta ordaindu ez den jasandako edo jasan behar izandako prezioa.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

4. Behin Zerga Administrazioak egiaztatuta aurreko apartatueta jasotako baldintzak betetzen direla, erantzukizuna deklaratu du 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 41.5 artikuluan xedatutakoaren arabera».

Laugarrena. 8. zenbakia gehitu zaio 120. lehen artikuluari. Hona hemen testua:

«8. Entitate taldearen araubide berezia».

Bosgarrena. IX. Kapituluaren erantsi zaio Foru Dekretu honetako IX. Tituluari. Hona testua:

«IX. Kapituluaren Entitate taldearen araubide berezia.

163. quinquies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziaren baldintza subjektiboak.

Lehena. Entitate taldearen araubide berezia aplikatu dezakete entitate talde batean parte hartzen duten enpresari edo profesionalek. Entitate taldeak hartuko da entitate nagusi batek eta horren mendeko entitateek osatutako taldea, betiere horien guztien jardura ekonomikoaren egoitzak edo establezimendu iraunkorrak zergaren aplikazio lurraldean kokatuta badaude.

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Enpresariak edo profesionalek ezin izango dute aldi berean parte hartu entitate talde batean baino gehiagotan.

Bigarrena. Entitate nagusitzat hartuko da baldintza hauek betetzen dituen:

a) Bere nortasun juridikoa izatea. Dena den, zergaren aplikazio lurraldean kokatutako establezimendu iraunkorrak entitate nagusitzat har daitezke establezimendu horiei atxikitako partaidetzak dituzten entitateei dagokienez, betiere apartatu honetan jasotako gainerako baldintzak betetzen badira.

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

b) Gutxienez izatea beste entitate baten edo batzuen %50eko partaidetza, zuzenean edo zeharka.

c) Partaidetza hori urte natural osoan edukitzea.
<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

d) Ez izatea zergaren aplikazio lurraldean kokatuta dagoen eta nagusitzat hartzeko baldintzak betetzen ez dituen beste entitate baten mendekoa.

Hirugarrena. Mendeko entitateak hartuko da, entitate nagusiaz besteko enpresari edo profesionala izanik, zergaren aplikazio lurraldean kokatuta dagoen entitatea, betiere entitate nagusiaren partaidetzak aurreko apartatuko b) eta c) letratan jasotako baldintzak betetzen baditu. Inoiz ere berez ezingo du mendeko entitateak eratu zergaren aplikazio lurraldean kokatutako establezimendu iraunkor batek.

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Laugarrena. Aurreko bigarren apartatuaren b) letran jasotako partaidetza bezalakoa eskuratzeko zaien entitateak entitate taldean sartu behar dira, partaidetza eskuratu ondorengo urte naturaletik aurrerako ondorioekin. Sortu berriko entitateak direnean, hala badagokio, horiek eratu direnetik aurrera sartu behar dira taldean, baldin eta entitate taldean parte hartzeko gainerako baldintzak betetzen badituzte.

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Bosgarrena. Mendeko izaera galtzen duten entitateak entitate taldekanpo geratuko dira, galera gertatzen den likidazio alditik aurrerako ondorioekin.

163. sexies artikulua. Entitate taldearen araubide berezia aplikatzeko baldintzak.

Lehena. Entitate taldearen araubide berezia aplikatuko da aurreko artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten entitateek banaka hala erabakitzen dutenean. Aukera horrek gutxienez 3 urterako balio izango du, betiere betetzen badira araubide berezia aplikatzeko baldintzak. Era berean, aukeraren indarraldia luzatutzat hartuko da, non eta ez zaion uko egiten Foru Dekretu honek 163. nonies. laugarrena. 1.a) artikuluan jasotakoaren arabera. Uko egin izanak gutxienez 3 urterako balio izango du, eta modu berean egingo da. Nolanahi ere, araubide berezia aplikatuko bada, entitate nagusiak aplikatu behar du.

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Bigarrena. Aurreko apartatuan aipatutako erabakiak dena delako entitateetako administrazio kontseiluek hartu behar dituzte edo, bestela, funtzio baliokidea betetzen duten organoek, betiere araubide berezia aplikatuko den urte naturala hasi baino lehen.

Hirugarrena. Aurreko apartatuan aipatutako obligazioak bete beharko dituzte, araubidea aplikaziozkoa den lehendabiziko urte naturala hasi aurretik, aurrerantzean taldean sartu eta araubide berezia aplikatzea erabakitzen duten entitateek.

<!--[if
!supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Laugarrena. Artikulu honen lehen eta bigarren apartatuetan aipatutako erabakiak bidezko denboran eta forman ez hartzeak berarekin ekarriko du erabakia hartu ez duten entitateek entitate taldearen araubide berezia ezin aplikatzea. Horrek ez du kenduko, hala badagokio, taldeko gainerako entitateei araubidea aplikatzea.

Bosgarrena. Entitate taldeak aukeratu dezake Foru Dekretu honetako 163.octies artikulua lehen eta hirugarren apartatueta jasotako aplikatzea. Horrela erabakitzen badu, Dekretuko 163.nonies.laugarrena.3 artikuluan jasotzen duen obligazioa bete behar da.

Aukera horrek barneratuko du araubide berezia aplikatu eta entitate talde bereko partaide diren entitateen multzoa. Artikulu honen bigarren apartatuan jasotakoaren arabera hartu behar da aukera.

Foru Dekretu honek 163.octies.lehena artikuluan aipatzen dituen eragiketei dagokienez, aukera hori gauzatzeak berarekin ekarriko du Foru Dekretu bereko 20.lehena artikuluan araututako salbuespenei uko egiteko ahalmena. Nolanahi ere, horrek ez ditu eragotziko, hala badagokio, entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek egiten dituzten gainerako eragiketak. Arauz ezartzen diren beharkizun, mugak eta baldintzak betez gauzatu behar da ahalmen hori.

163.septies artikulua. Entitate taldeen araubide bereziaren aplikaziorako eskubidea galtzeko arrazoiak.

Lehena. Arrazoi hauek direla medio utziko zaio kapitulu honetan araututako araubide berezia aplikatzeari:

1. Gertatzea martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 52. artikuluan jasotakoari jarraituz zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzea dakarren edozein zirkunstantzia.
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

2. Ez betetzea Foru Dekretu honek 163.nonies.laugarrena.3 artikuluan aipatzen duen informazio sistema osatu eta gordetzeko obligazioa.

Kapitulu honetako araubide berezia lehenago aipatutako arrazoiak direla medio ez aplikatzeak ez du eragotziko, hala badagokio, Foru Dekretu honek 163.nonies.zazpigarrena artikuluan jasotako zigorrek jartzea.

Bigarrena. Aurreko apartatuan jasotzen den entitate taldearen araubide berezia aplikatzeari uzteak ondorioa sortuko du zirkunstantzia horietako bat gertatzen den likidazio aldiaren ondorengoetan. Hori horrela, taldea osatzen duten entitate guztiek aldi horretatik aurrera bete beharko dituzte Foru Dekretu honek jasotako obligazio guztiak.

Hirugarrena. Taldeko entitate bat edozein likidazio aldi amaitzean konkurtso egoeran edo likidazio aldiaren badago, taldearen araubide berezitik kanpo geratuko da aldi hartatik aurrera. Dena den, aurreko hori gertatu arren, araubide berezia aplikatzen jarraituko zaie horretarako jarritako baldintzak betetzen dituzten gainerako entitateei.
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

163.octies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziaren edukia.

Lehena. Foru Dekretu honek 163.sexies.bosgarrena artikuluan jasotzen den aukera gauzatzen denean, kapitulu honetako araubide berezia aplikatzen duen talde bereko entitateen artean zergaren aplikazio lurraldean egindako ondasun salmenten eta zerbitzu prestazioen oinarri ezargarria osatuta egongo da horiek egitean zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, erabili diren eta zerga benetan jasatea edo ordaintzea ekarri duten ondasun eta zerbitzuen kostuaz. Erabilitako ondasunak inbertsio ondasunak direnean, horien kostua osorik egotzi behar da, Foru Dekretu honek 107. artikulua lehen eta hirugarren apartatueta ondasun horien kuotetarako finkatzen duen erregularizazio aldiaren barruan.
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Dena den, Foru Dekretu honetako 78. eta 79. artikuluetan xedatutakoari jarraituz baloratuko dira eragiketa horiek, Foru Dekretu honek 101.etik 119. artikulura bitartean eta 121. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.

Bigarrena. Zergaren arau orokorreari jarraituz arituko da taldeko entitate bakoitza, talde berekoak ez diren entitateekin egindako eragiketetan, eta horretarako entitate taldearen araubideak ez du batere ondorio sortuko.
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Hirugarrena. Foru Dekretu honek 163.sexies.bosgarrena artikuluan jasotzen duen aukera gauzatzen denean, jardueraren sektore berezia osatuko dute artikulua honetako lehen apartatuan aipatzen diren eragiketek. Gainera, sektore hori lotutzat hartuko dira eragiketa horiek egitean zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, erabili diren eta zerga benetan jasatea edo ordaintzea ekarri duten ondasun eta zerbitzuak.

Foru Dekretu honek 101.lehena artikulua 4. paragrafoan jasotakoaren salbuespen gisa, enpresari edo profesionalak osorik egin dezakete eragiketa horiek zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, egitera bideratutako ondasun eta zerbitzuak erosteagatik jasan edo ordaindu diren kuoten kenkaria, betiere ondasun eta zerbitzu horiek erabiltzen badira Foru Dekretu honek 94. artikuluan jasotakoaren arabera kenkarirako eskubidea sortzen duten eragiketak egiten. Kenkaria aipatu ondasun edo zerbitzuei buruz aurreikusita dagoen xedearen arabera egin behar da. Nolanahi ere, horrek ez du eragozten kenkaria zuzentzea, geroago xedea aldatzen bada.

Laugarrena. Entitate taldeko enpresari edo profesional bakoitzaren kuota kenkaridunen zenbatekoa zehazteko, aplikatu behar da Foru Dekretu honek VIII. Tituluaren lehen Kapituluari eta aurreko apartatuko erregela berezietan jasotakoa. Kenkari horiek banaka egin behar ditu entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duen enpresari edo profesional bakoitzak.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Behin zehaztuta enpresari edo profesional bakoitzaren kuota kenkaridunen zenbatekoa, horrexek gauzatu behar du, banaka, kenkarirako eskubidea aipatu titulu eta kapituluari jasotakoaren arabera.

Dena den, enpresari edo profesional batek bere banakako aitorpen-likidazioetako batetik konpentsatzeko ateratzen zaion saldoa entitate taldearen baterako aitorpen-likidazio batean sartzen duenean, ezin izango da zenbateko hori konpentsatu ondorengo aldi bati dagokion banakako aitorpen-likidazio batean, kontuan hartu gabe entitate taldearen araubide berezia geroago aplikatu daitekeen edo ez.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Bosgarrena. Entitate taldeko entitateetako batek egindako eragiketei aplikaziozkoa bazaie Foru Dekretu honek araututako gainerako araubide berezietako edozein, araubide horien arabera dagokien kenkari araubideari lotu behar zaizkio eragiketa horiek.

163. nonies artikulua. Entitate taldearen araubide bereziko berariazko obligazioak.

Lehena. Kapitulua honetan jasotako zerga obligazioak bete behar dituzte entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek.

Bigarrena. Entitate nagusiak ordezkaturako du entitate taldea Zerga Administrazioaren aurrean. Kontzeptu horren barruan, entitate taldearen araubide bereziak dakartzan arlo material eta formaleko zerga obligazioak bete behar ditu entitate nagusiak.

Hirugarrena. Entitate nagusiak nahiz mendeko entitate bakoitzak Foru Dekretu honetako 164. artikuluan jasotako obligazioak bete behar dituzte. Dena den, salbuespen gisa, datorren apartatuko 2. obligazioan jasotakoaren arabera jokatu behar da, zerga zorra ordaintzean edo konpentsazioa edo itzulketa eskatzean.

Laugarrena. Entitate nagusiak erantzungo du, bere obligazioak betetzeari utzi gabe, betebeharrak hauek konplizteaz, betiere arauz ezartzen diren beharrez, muga eta baldintzak betetz.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

1. Informazio hau jakinaraztea Zerga Administrazioari:
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

a) Baldintzak bete izana, erabakiak hartu izana eta araubide bereziaren aplikazioa aukeratu izana, horiek guztiak Foru Dekretu honek 163. quinquies eta sexies artikuluetan jasotakoak. Informazio hori guztia aurkeztu behar da araubide berezia aplikatuko den urte naturala hasi aurretik.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

b) Taldearen barruan araubide berezia aplikatzen duten entitateen zerrenda. Hala badagokio, aurreko urtearen aldean osieran edozein aldaketa izan duten entitateak identifikatu behar dira. Informazio hori urte natural bakoitzeko abenduan jakinarazi behar da, ondoko urteari dagokionez.

c) Araubide bereziari uko egin izana. Aipatu uko horrek ondorioa izan behar duen urte naturala hasi aurretik abenduan egin behar da, araubide berezia aplikatzen duten entitate guztien ukoari dagokionez nahiz bakoitzaren ukoari dagokionez.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

d) Foru Dekretu honek 163.sexies. bosgarrena artikuluan jasotzen duen aukera egin izana. Aipatu aukera horrek ondorioa izan behar duen urte naturala hasi aurreko abenduan egin behar da.

2. Entitate taldearen baterako aitorten-likidazio aldizkakoak aurkeztea. Hala badagokio, zerga zorra ordaindu edo konpentsazio edo itzulketa eskatu behar da.

Baterako aitorten-likidazio horietan jaso behar dira entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateen banakako aitorten-likidazioen emaitzak.

Entitate taldearen baterako aitorten-likidazio aldizkakoan aurretik, aurkeztu behar dira entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duen entitate bakoitzaren banakako aldizkako aitorten-likidazioak.

Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateen likidazio aldia bat etorri behar da hil naturalarekin, kontuan hartu gabe zein den haien eragiketa bolumena.

Likidazio aldi baterako, entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateen alde konpentsatzeko saldoen zenbateko osoa handiagoa denean entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten gainerako entitateek likidazio aldi bererako duten ordaintzeko saldoen zenbatekoa baino, soberakina konpentsatu daiteke geroago aurkezten dituzten baterako aitorten-likidazioetan, betiere ez badira lau urte igaro soberakina sortu duten banakako aitorten-likidazioak

aurkezten direnetik aurrera.

Hala ere, entitate taldeak bere aldeko saldoa itzultzea aukeratu dezake, Foru Dekretu honetako VIII. Tituluaren II. Kapituluan xedatutakoaren indarrez bidezkoa denean. Dena den, kasu horretan ezin izango du aipatu saldoa konpentsatu ondoren egiten dituen baterako aitorten-likidazioetan, itzulketa hori ordaindu arte igarotako denbora edozein izanik ere. Taldearen araubidearen alde egiten duten enpresari edo profesionalei ez zaie aplikatuko Foru Dekretu honetako 115.bigarrena eta 116. artikuluetan xedatutakoa.

Entitate taldearen araubide berezia aplikatzeari uzten bazaio eta taldeko entitateetarako konpentsatzeko diru kopuruak geratzen badira, entitate horiei egotziko zaizkie kopuru horiek, araubide berezia aplikatu den azken urte naturaleko eragiketa bolumenaren proportzioan. Horretarako, Foru Dekretu honek 121. artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

3. Informazio analitikoko sistema edukitzea, Foru Dekretu honek 163.octies.lehena artikuluan aipatzen dituen eragiketak egitean zuzenean edo zeharka, osorik edo zati batean, erabili diren ondasun eta zerbitzuak egotzeko arrazoizko irizpideetan oinarrituta. Sistema horretan jaso behar da aipatu ondasun eta zerbitzuak segidan erabili izana harik eta amaieran horiek taldetik kanpo aplikatu arte.

Informazio sisteman, egozpen irizpideei buruzko memoria sartu behar da. Aipatu irizpideak homogeenak izan behar dira taldeko entitate guztietarako, eta araubide berezia aplikatu den aldi guztietan mantendu, non eta zentzuzko arrazoiak direla medio ez diren aldatzen eta azken horiek memorian bertan ez diren jasotzen.

Zergaren preskripzio epean gorde behar da informazio sistema.

Bosgarrena. Entitate taldean sartutako entitateetako batek epez kanpo aurkezten badu banakako aitorten-likidazioa, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 27. artikuluan jasotakoaren arabera, hala badagokio, bidezkoak diren errekargu eta interesak aplikatuko dira. Horretarako, ez du batere eraginik izango banakako aitorten-likidazioaren saldoa hasieran entitate taldearen baterako aitorten-likidazio batean sartu izanak.

!

Entitate taldearen baterako aitorten-likidazioa epez kanpo aurkezten denean, horren emaitzen gainean aplikatuko dira 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 27. artikuluan jasotako errekaruak, eta entitate nagusia arduratuko da horiek ordaintzeaz.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

<!--[endif]-->

Seigarrena. Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek solidarioki erantzungo dute araubide berezi horretatik datorren zerga zorra ordaintzeaz.

Zazpigarrena. Laugarren apartatuko 3. obligazioan aipatzen den informazio sistema ez eramatea edo ez gordetzea entitate nagusiaren zerga urraketatzat hartuko da. Zigor gisa, taldearen eragiketa bolumenaren %2ko diru isun proportzionala jarriko zaio.

Laugarren apartatuko 3. obligazioan aipatzen den informazio sisteman informazioa zehaztu gabe jasotzea edo ez jasotzea entitate nagusiaren zerga urraketatzat hartuko da. Zigor gisa, zehaztu gabe edo jaso gabe dagoen informazioan aipatutako hirugarrenei erositako ondasun eta zerbitzuen zenbatekoaren %10eko diru isun proportzionala jarriko zaio.

Aurreko bi paragrafoetan jasotako zigorrak bateragarriak dira Foru Arau horren 195., 197., 198. eta 199. artikulua aplikatuz bidezkoak diren zigorrekin, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 185. artikulua 3. apartatuan xedatutakoari jarraituz. Apartatu honetan ezarritako zigorrak jartzeak eragotziko du Foru Arau horrek 191. artikulua 1. apartatuko c) letran iruzur bitartekoak mailakatzeko jasotako irizpidea erabiltzea, laugarren apartatuko 3. obligazioan aipatutako informazio sistema ez eramateagatik, oker eramateagatik edo ez gordetzeagatik.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

<!--[endif]-->

Entitate nagusia urratzailea izango da, entitate taldearen araubide bereziko berariazko obligazioak ez betetzeagatik. Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten gainerako entitateek solidarioki erantzungo dute zigor horiek ordaintzeaz.

Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateek erantzungo dute beraien zerga obligazioak ez betetzeak dakartzan urraketaz.

Zortzigarrena. Entitate taldearen araubide berezia aplikatzen duten entitateen obligazioak behar bezala bete direla egiaztatzeko, entitate nagusiarekin egingo dira jarduketak, taldearen ordezkariatzat hartuta. Era berean, mendeko entitateekin ere egin daitezke egiaztatzeko jarduketak, eta kasu egin beharko diote Zerga Administrazioari.

Entitate taldeko edozein entitateri zuzendutako egiaztapen edo ikerketek taldeko entitate guztiei dagokien zergaren preskripzio epea etengo dute, entitate nagusiak aipatu jarduketak formalki ezagutzen dituenetik aurrera.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

<!--[endif]-->

Araubide berezi hau egiaztatzean egiten diren aktak eta likidazioak, era berean, entitate nagusira zabalduko dira.

Araubide berezi hau aplikatzeko kasuetan, aukera izango da egiaztapen eta ikerketa epea hamabi hilabete gehiagora arte zabaltzeko, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 147. artikulua 1. apartatuko hirugarren paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako».

3. artikulua. Zerga bereziak aldatzea.

Aldaketa hauek egin dira Gipuzkoako zerga araudia Zerga bereziei buruzko abenduaren 28ko 38/1992 Legearen xedapenetara egokitze martxoaren 3ko 20/1998 Foru Dekretuan:

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

<!--[endif]-->

Lehen. 2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, honela aldatu dira 50.1 artikulua 1. tarifako 1.3 eta 1.5 epigrafeak:

«1.3 epigrafea. Erabilera orokorreko gasolioak: 278,00 euro 1.000 litro bakoitzeko».

«1.5 epigrafea. Fuel-olioak: 14,00 euro tona bakoitzeko».

Bigarrena. Indargabetuta geratu da 51. artikulua 4. apartatua.

Hirugarrena. 52.bis artikulua berria sartu da. Hona hemen idazkera:

«52.bis artikulua. Itzulketa partziala erabilera profesionaleko gasolioarengatik.

1. Bigarren apartatuan aipatutako ibilgailuen titularrek, betiere horretan jasotako baldintzak betetzen badituzte, eskubidea izango dute haiek ordaindu edo jasandako Hidrokarburoen gaineko Zergaren itzulketa partziala jasotzeko, aipatu ibilgailuen motorrean erregai gisa sartutako erabilera orokorreko gasolioari dagokionez.

2. Hauexek dira 1. apartatuan aipatzen diren ibilgailuak:
<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

a) Ibilgailu motordunak eta ibilgailu akoplatuen multzoak, baldin eta bakarrik erabiltzen badira merkantzien errepide bidezko garraioan, besteren kontura edo norbere kontura, eta 7,5 tonako gehieneko pisu baimendua edo hortik gorakoa badute.

b) Bidaiarien garraio erregularrean edo inoizkakoan erabiltzen diren ibilgailu motordunak, betiere sartuta badaude Kontseiluaren 1970eko otsailaren 6ko 70/156/EEE Zuzentarauak, Europar Batasuneko estatu kideen ibilgailu motordunen eta horien atoen arloko legediak hurbiltzeari buruzkoak, jasotako m² edo m³ kategorietan.

c) Taxiak. Honetarako, taxitzat hartzen da bidaiarien zerbitzu publikoan erabiltzen den turismoa, udal baimena duena eta taximetra daukana.

3. Aurreko apartatuan aipatutako ibilgailuen titularrek eduki behar dute jardueran aritzeko gaitzen duen titulu administratiboa, hala badagokio, Lehorreko Garraioa Antolatzeke uztailaren 30eko 16/1987 Legeak jasotakoaren arabera. Era berean, autonomietako edo tokiko agintariek jardueran aritzeko eman beharreko lizentzia eta baimenak eduki behar dituzte aipatu titularrek.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Lurralde espainiarrean egoitza ez duten baina bai Europar Batasuneko gainerako lurraldean egoitza edo establezimendu iraunkorra duten titularrak direnean, eduki behar dituzte dena delako estatu kidearen araudiak jardueran aritzeko finkatzen dituen baimen administratiboak.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

4. Itzulketaren oinarria izango da ondorengo 5. apartatuan aipatutako koefizienteetako bat interesatuak erosi duen eta aurreko 2. apartatuko ibilgailuetan erregai gisa, bioerregaiekin nahastuta ere, erabili duen gasolio bolumenarekin biderkatuz ateratzen den emaitza. Oinarria mila litrokotan adierazi behar da.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

5. Gasolio horniduraren batez besteko tenperatura eta gasolioan jasotako bioerregaien batez besteko bolumena aintzat hartze aldera, koefiziente zuzentzaile hauek finkatu dira:

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

a) Ondorengo b) letran jasotakoez besteko erabilera orokorreko gasolioak: 0,998.

b) Automozio gasolioaren ezaugarri teknikoak betetzen dituzten baina, bioerregaien edukiarengatik eta ezaugarri teknikoari buruzko araudiari jarraituz, saltokietan berariazko etiketa behar duten produktuak: Koefiziente zuzentzailea izango da 1.3 epigrafeke tasan zergapetuta eta produktuan jasota dagoen gasolio kopurua (bateko hainbestekotan adierazia) 0,998522 faktorearekin biderkatuz ateratzen den emaitza. Horren balioa hirugarren zenbaki hamartarrekin biribildu behar da.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

Fiskalitaterako eta Finantzeterako Foru Diputatuak berrikus ditzake, lehen aldiz 2008ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aurreko a) letran jasotako koefiziente zuzentzailearen balioa eta aurreko b) letran jasotako faktorea, datuen arabera aldaketa nabarmenak hautematen direnean estatuaren barruko lurraldeko batez besteko tenperaturari eta estatuaren barruko lurraldean 1.3 epigrafeke tasa aplikatuta kontsumogai jarritako gasolioan azkenean bioerregaiek duten batez besteko proportzioari buruzko datuetan.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->
<!--[endif]-->

6. a) Itzulketaren tasa izango da, 1.000 litro bakoitzeko eurotan adierazita, itzultzeko eskubidea sortzerakoan indarrean dagoen 1.3 epigrafearen ezarpen tasatik 269,86 euro kenduz ateratzen den emaitzaren zenbateko positiboa.

b) Foru arau mailako xedapen bidez aldatu daiteke itzulketaren tasa.

c) Gehienez itzultzeko zenbatekoa ez da handiagoa izango ibilgailu eta urte bakoitzeko 50.000 litro gasoliori egokituko litzaiokeen itzulketa baino. Nolanahi ere, autotaxiak badira, gehienez itzultzeko kopurua ez da handiagoa izango autotaxi eta urte bakoitzeko 5.000 litro gasoliori egokituko litzaiokeen zenbatekoa baino.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Foru Diputatuak xedatu dezake muga horiek zatikatzea, urtetik beherako denbora tarteei dagokienez aplikatze aldera.

7. Fiskalitaterako eta Finantzetarako Foru Diputatuak finkatuko du itzulketaren prozedura, eta alderdi hauek konpentsatu ditzake, besteak beste:

a) Interesatuek berariazko erregistro batean izena emateko obligazioa, eta zerga aitorpenak aurkezteko obligazioa itzulketa kudeatu eta egiaztatzeko garrantzitsuak diren jarduera datuei dagokienez.

b) Interesatuek berariazko ordainbideak erabiltzeko obligazioa, itzulketa eskatu den gasolioa eroste aldera. Hala ezartzen denean, itzulketa eskatzeko zerga aitorpentzat hartuko da itzulketa eskatu duten gasolioa eroste aldera interesatuek berariazko ordainbideak derrigorrez erabiltzea.

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

c) Zerga Administrazioari itzulketaren eskatzaileek aipatu ordainbideak erabiltzean lortzen den informazioa emateko obligazioa, berariazko ordainbideak ematen dituzten entitateetarako eta haiek onartzen dituzten saltzaileentzat.

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

8. Aurreko 7. apartatuan aipatzen den berariazko ordainbideen erabilpena, betiere egiten bada artikulu honetan araututako itzulketa-eskubidea behar ez bezala sortzen duen gasolio erosketaren itxura egite aldera, zerga urraketa izango da, eta zigor gisa jarriko da itxura egindako erosketaren zenbatekoaren hirukoitzaren pareko diru isun proportzionala, gutxienez 3.000 eurokoa. Urraketa horiek egiteak dakarren erantzukizuna egozteko, egiletzat hartuko dira aipatu ordainbideen titularrak, non eta behar bezala salatutako lapurreta ez den gertatu.

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

9. artikulu honetan araututako itzulketa eskatzen den gasolioa erabiltzea debekatuta dago 2. apartatuan aipatutako ibilgailuenak ez diren motorretan. Debeku hau ez betetzea zerga urraketa da, eta Foru Dekretu honek 55. artikuluan jasotakoaren arabera zigortuko da.

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

10. Aurreko apartatuan jasotako urraketa zigortzeak ez du kentzen itzulketa eskatzen den gasolioa jasotzeko baimendik ez duten pertsonen hornitzen dietenei dagokien erantzukizuna.

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

Foru Dekretu honek 8.6 eta 15.11 artikuluetan jasotakoa aplikatzeko, itzulketa eskatzen den gasolioa hartuko da erabilpena dela-eta tasa murriztua aplikatu zaion gasoliotzat.

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

Lau. 2006ko azaroaren 11tik aurrerako ondorioekin, honela aldatu da 60. artikulua 5. epigrafea:

«5. epigrafea. Bigarren epigrafeko tasak aplikatuta ateratzen diren kuoten batura epigrafe honetan ezarritako tasa bakarraren zenbatekoa baino txikiagoa denean, zigarriloak 70 euroko tasa bakarrarekin zergapetuko dira 1.000 zigarrilo bakoitzeko».

Bost. Honela aldatu da 71. artikulua 1. apartatuko f) paragrafoa:

«f) Hamabost metroko luzera gainditzen ez duten aisiarako eta kirolerako urontzi eta itsasontziak, soilik alokairu jardueren lotzeko xedez matrikulatu direnean.

<!--[if
<!--[endif]--> !supportLineBreakNewLine]-->

Salbuespen hau aplikatu ahal izateko, ezinbestekoa izango da ibilgailuen alokairurako ezarritako mugak eta beharkizunak betetzea. Nolanahi ere, alokatze jarduerarik ez dagoela ulertuko da titularrak urontzia errentan lagatzen duenean, betiere titular horrek edo berari lotutako pertsonak edozein tituluz jasotzen badu aipatu urontzia edo lagapen hartzailearen edo horri lotutako pertsona baten jabetzako beste edozein osorik edo zati batean erabiltzeko eskubidea. Paragrafo hau aplikatzeko, elkarri lotutako pertsonatzat hartzen dira 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duenak, 79. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsonak».

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

<!--[endif]-->

Seigarrena. Honela aldatu dira 71. artikulua 1. apartatuko j) eta k) letrak:

«j) Aire nabigaziorako enpresen izenean matrikulatutako aireontziak.

Aire nabigazioko enpresei errentan eman zaizkien eta haien izenean matrikulatuta dauden aireontzien kasuan, albuespena ez da aplikatuko errentatzailea edo horri lotutako pertsonak, denak batera, aireontziaren amaierako erabiltzaile gertatzen direnean aireontziak segidako hamabi hilabetetan egindako hegaldi orduen %5etik gorako portzentajea. Paragrafo hau aplikatzeko, elkarri lotutako pertsonatzat hartzen dira 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duenak, 79. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsonak.

k) Soilik aire nabigaziorako enpresei errentan lagatzeko matrikulatu diren aireontziak.

Salbuespena ez da aplikatuko aireontziaren matrikula bere izenean daraman pertsona edo horri lotutako pertsonak, denak batera, aireontziaren amaierako erabiltzaile gertatzen direnean aireontziak segidako hamabi hilabetetan egindako hegaldi orduen %5etik gorako portzentajea. Paragrafo hau aplikatzeko, elkarri lotutako pertsonatzat hartzen dira 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legera egokitzen duenak, 79. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten pertsonak».

Zazpigarrena. Honela aldatu da 77. artikulua:

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

<!--[endif]-->

«77. artikulua. Zerga likidatzea eta ordaintzea.

1. Subjektu pasiboak autolikidatu eta ordaindu beharko du zerga, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Foru Diputatuak agindutako toki, modu, epe eta inprimaketan.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

<!--[endif]-->

2. Ibilgailu erabiliak direnean, Zerga Administrazioak oniritzia eman behar dio autolikidazioari, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Foru Diputatuak finkatzen duen moduan, organo eskudunak behin betiko matrikulatu aurretik.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

<!--[endif]-->

Autolikidaziotik ateratzen den kuota txikiagoa denean Fiskalitaterako eta Finantzatarako Foru Diputatuak onartutako salmentarako batez besteko prezioak aplikatuz aterako litzatekeen kuota baino, paragrafo honetan aipatzen den oniritzia bakarrik eman daiteke behin oinarri ezgarri gisa jarritako balioa egiaztatuta 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 56. artikuluan jasotakoaren arabera. Batez besteko prezioak izango dira interesatuak Zerga Administrazioari oniritzia eskatzen dionean indarrean daudenak.

Aitorpenean jasotako balioa egiaztatu behar da, era berean, Fiskalitaterako eta Finantzatarako Foru Diputatuak autolikidazioan aipatutako ibilgailurako onartutako salmentako batez besteko preziorik ez dagoenean.

Gehienez 30 egun izango dira aipatu balioa egiaztatzeko, ibilgailua Zerga Administrazioaren eskura jartzen denetik aurrera. Behin aipatu epea igarota balioa egiaztatu gabe, onartu egingo da zergapekoak aitortutako balioa. Epea zenbatzeko, aplikaziozkoa izango da 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 100. artikulua 2. apartatuan jasotakoa.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

<!--[endif]-->

3. Garraiobidearen behin betiko matrikulazioa egiteko, egiaztatu behar da zerga ordaindu izana edo, hala badagokio, zergapetu gabe edo salbuetsita egotea aitortu izana.

Ibilgailu erabiliak direnean, zerga ordaindu izana frogatzeko Zerga Administrazioak oniritzia emandako autolikidazioa aurkeztu behar da, horren zenbatekoa Foru Ogasunean ordaindu izana jasotzen duena».

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehena. Aplikatzea Balio Erantsiaren gaineko Zergako entitate taldearen araubide berezia eta adiskidantzazko prozedurak.

1. Zerga 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera sortzen zaien eragiketei dagokienez aplikatuko da 1992ko abenduaren 29ko 102/1992 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 37/1992 Legera egokitzen duenak, IX. Tituluaren IX. Kapituluan jasotakoa, betiere Foru Dekretu Arau honek emandako idazkeran. Arauz finkatuko dira hori guztia aplikatzeak dakartzan obligazioak betetzeko beharkizunak, modua eta baldintzak.

<!--[if !supportLineBreakNewLine]-->

<!--[endif]-->

2. 1999ko apirilaren 26ko 2/1999 Foru Arauak, Zergadun Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergari buruzkoak, laugarren xedapen gehigarriaren 5. apartatuan jasotakoa, betiere Foru Dekretu Arau honek emandako idazkeran, aplikaziozkoa izango da aipatu xedapen gehigarria garatzen duen xedapena indarrean jartzen denetik aurrera.

Bigarrena. Berandutza interesa.

2007ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, %6,25koa izango da 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 26.6 artikuluan aipatzen duen berandutza interesa.

XEDAPEN IRAGANKORRA

2. artikuluko bigarren eta hirugarren apartatuetan jasotakoa aplikaziozkoa izango zaie Balio Erantsiaren gaineko Zerga 2006ko abenduaren 1etik aurrera sortzen zaien eragiketei.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

2006ko abenduaren 1etik aurrerako ondorioekin, indarrik gabe geratu da Zenbait Hidrokarburoren Txikizkako Salmenten gaineko Zergari buruzko martxoaren 20ko 2/2002 Foru Arauaren 6. artikuluko lehen apartatuko e) letra.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru Dekretu Arau hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta ondorengo egunean jarriko da indarrean, eta 2006ko abenduaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Nolanahi ere, bere xedapenetan jasotako beste ondorio espresu batzuk kontuan hartu behar dira.

Donostia, 2007ko urtarrilaren 9a.

DIPUTATU

NAGUSIA,

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Miranda.

FISKALITATERAKO

ETA

FINANTZETARAKO
DEPARTAMENTUKO
DIPUTATUA,

FORU

Juan Jose Mujika Aginagalde.